

Koordinazioa (Bizkaia-Gipuzkoa)
Jon Errandonea

Batzorde antolatzailea (Bizkaia-Gipuzkoa)
Martin Arriolabengoa
Idoia Garate
M. Karnele Urtiaga

GEOLOGIA SAILA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Euskal Herriko Unibertsitatea
UPV/EHU

Entitate laguntzaileak



Asociación
Española para la
Enseñanza de las
Ciencias de la Tierra



Sociedad
Geológica
España




EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA



unesco

Global Geopark

Euskal Autonomia Erkidegoko XVIII Geologia Olinpiada (Bizkaia-Gipuzkoako sedea) 2026ko otsailak 13



Euskal kostaldeko Flysch Beltzarekin erlazionatutako argazkiak

Izen ematea: otsailak 11 arte
Froga teorikoa, praktikoa eta finala: otsailak 13



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

Helburuak

Bertan bizi garen arren, oraindik ere, gizateriaren gehiengo batentzat guztiz ezezaguna da Lurra. Geologiaren laguntzarekin gure Planeta ezagutzen eta bertan gertatu diren eta gertatzen diren prozesuak ulertzen ikasten dugu. Geologiako Olinpiaden bitartez DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengan zientzia honen ezagutza garatu nahi dugu, bere aplikazioek gaur egun duten eta etorkizunean izan dezaketen eraginaz ohar daitezen.



Parte hartzaileak

Parte hartu ahal izango dute 2025/2026 ikasturtean Bizkaia eta Gipuzkoako DBH-ko 4. mailako edo Batxilergoko 1.º edota 2. mailan matrikulatutako ikasleek, 19 urte bete ez dutenek.

Izen-ematea

Bizkaia-Gipuzkoako sedean parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete edo zuzenean eskaera-orri bat bidali jon.errandonea@ehu.eus posta elektronikora. Eskaera-orrian agertu behar diren datuak ondorengoak dira: ikasleen eta irakaslearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, ikastetxeko izena eta helbidea, harremanetarako e-mail bat eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia.

Izen-emateko epea 2026ko otsailaren 11an bukatuko da

Garapena

Froga teorikoan DBH-ko laugarren mailako eta Batxilergoko edukietatik ateratako test-motako galderak izango dira. Aldiz, froga praktikoa 10 bat laginekin osatuta egongo da eta arroka, mineral, egitura eta fosil ezberdinak identifikatu beharko dira. Galderak erantzun bakarreko test motakoak izango dira.

Ondoren, atsedenaldi baten ostean, emaitza onenak lortu dituzten lau ikasle aukeratuko dira eta galdera-erantzunen joku bat egingo da parte hartu duten ikasle guztien aurrean. Denei galdera berdinak egingo zaizkie eta akatsak batu egingo dira. Lau akats egiten duen ikaslea kanporatua izango da, ikasle bakarra gelditu arte.

Hurrengo urratsak

Txapeldunak Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatuko du Olinpiadako fase nazionalan. Fase nazional eta internazionalari buruzko informazio gehiagorako sartu AEPECT-eko hurrengo web orrian:

<https://www.aepect.org/actividades-geologicas/olimpiada-geologia/>

Bizkaia-Gipuzkoako sedearen frogen tokia eta data:

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU. Bizkaia-ko Kanpusa. Sarriena auzoa z.g. Leioa (Bizkaia).

Data: 2026ko otsailak 13. Atal teorikoa (9:30), praktikoa (10:30), eta kanporaketa-jokua (12:00).

Baldintzak: Froga era presentzialean baino ez da egingo.

Sariak

Olinpiada irabazten duten ikasleek, Olinpiadako fase nazionalera joateko aukera izango dute gasturik gabe. **Euskal Kostaldeko Geoparkeak** sedeko lehen lau ikasleei, lagun banarekin, flysch-a ikusteko itsasontziz bisita gidatua eskaintzen die. Gainera, UPV/EHU-ko Zientzia eta Teknologia Fakultateak diploma bat emango die parte hartu duten ikasle guztiei.